

**Aiete Ikasle Egoitza
nagusiak eta
Donostiako Aiete
Parrokiak kontzertu
bat antolatu dute
haurren
prostituzioaren
aurka.**

Austrian Sinfoniettak
zuzendutako Kontzertuaren
irabaziak SOMOSUNO
GKErentzat izango dira.

Bostehun pertsona baino gehiago egon ziren joan den azaroko 27an Aiete Ikasle Egoitza Nagusiak antolatutako musika klasikoaren kontzertuan Asiako haurren prostituzioaren aurka. Mozarten Adagio eta fuga do minoren izan zen aukeratutako obra, eta Austrian Sinfoniettak interpretatu zuen Iñigo Pirfano orkestra zuzendari euskaldunaren batutapean Aiete Gurutzeaga Parrokiaren barruan. Kontzertua itxi zuten Elvia Sánchez kontrabaxuak eta Ainhoa Zubillaga kontraltuak Pergolesiren Stabat Mater interpretatuz.

Jasotako funtsak Thailandiako SOMOSUNO GKeri zuzendu zaizkie bere eskolatze lanen alde.

Ekimen honen bidez, Aiete Ikasle Egoitza Nagusiak Aiete Gurutzeaga Parrokiarekin batera, “lehen mundua deitutako gizarteei baita azpigaratutako herrialdekoei

hainbeste kalte egiten dieten arazo sozialekiko sentsibilizazioa sustatzea” bilatzen du. “Egoera horiek hausnararazi behar digute, egite hauekin gutxietsiei lagundu beharrean, haien hondamenari laguntzen zaiola, gurearekin batera” esan zuten antolatzaileek, pozik kontzertura joan zen unibertsitateko ikasle kopuruagatik.

Beste egoera horiengana hurbiltzeko modu bat bezala eta euskal unibertsitateko munduaren sentsibilitatea sustatzearen, mundu guztiko musikalariek osatzen duten Austrian Sinfoniettak in musika kontzertu hau antolatzea aukeratu zuen.

“Espero dugu gure artean hurbiltasuna bilatzeko, eta gure inguruan baita urrutiko herrialdetan dituzten arazoetatik at ez bizitzea beharrezkoa dela jabetzeko balio dezala bilera honek” esan zuten

berriro Donostiako Ikasle Egoitza
Nagusikoek, urtearen zehar beste
halako ekitaldiak antolatzeko asmoz.

Kontzertuaren irabaziak Thailandian
eskolatze programa garatzen duen
SOMOSUNO GKErentzat izan dira.
Ekitaldiak erakunde pila bat
bateratzea lortu du ekitaldi honen
laguntzaile bezala: Eusko Jaurlaritza,
Kutxa, Diario Vasco, Tecnun.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/aiete-ikasle-egoitza-
nagusiak-eta-donostiako-aiete-
parrokiak-kontzertu-bat-antolatu-dute-
haurren-prostituzioaren-aurka/](https://opusdei.org/eu-es/article/aiete-ikasle-egoitza-nagusiak-eta-donostiako-aiete-parrokiak-kontzertu-bat-antolatu-dute-haurren-prostituzioaren-aurka/) (2026
Ots 22)